

## BIDAIA AGENTZIEN ITXIERA

GOMENDIOAK

### Adi egon



Opor-sorta bat edo bidaiak konbinatu bat kontratatu baduzu ixtera doan edo jada itxi den bidaiak-agentzia batekin, Kontsumobideren gomendioak jarraitu.

## Kontsumobideren gomendioak:

1. Bidaia ezeztatu nahi baduzu eta ordainketa kreditu-txartel baten bidez egin baduzu, zoaz zure banketxera kargua baliogabetzeko eskatzera. Lehenbailehen. Baliteke ordainketa egiteko erabili duzun txartelaren aseguruaren batek zure egoera estaltzea. Kontuan izan ordainketa egin den momentutik hasten dela korritzen zure kontuko kargua atzera botatzeko epea.

2. Kargua baliogabetu ezin baduzu, jakin ezazu zer egoeratan zauden bidaiari dagokionez. Horretarako, jarraituz harremanetan kontratatu dituzun zerbitzuak ematen dituzten enprekin:

Egiazta ezazu zuzenean lekualdatzeak egitekoak zenituen garraio-konpainiekin (hegazkina, autobusa, tren...) agentziak ordainketaren bat egin dien eta zure izenean kontratatutako zerbitzurik ba ote duten.

Jarri harremanetan, orobat, ostatu hartzekoak zinen hotelarekin edo lekuarekin, zure izenean erreserbaren bat egin duten edo aurreikusitako egonaldia ordainduta dagoen egiaztatzeko.

Baliteke, esandako egiaztatze horiek egin ostean, zure izenean erreserbaren bat eginda egotea; une horretan, zerorrek erabaki beharko duzu aurreikusitako bidaiaren planifikazioarekin aurrera egin edo ez.

3. Aldiz, aurreratutako dirua berreskuratu ezin baduzu, eta bidaiak bertan behera geratu bada, ordaindutako zenbatekoaren erreklamazioa egiteko, enpresak hartzekodunen konkurtsoa deituko duen ala ez jakin behar duzu.

Hartzekodunen konkurtsoari dagokionez, enpresa baten hartzekodunen konkurtsoan kontsumitzailea noiz, nola eta non aurkeztu behar duen informatzeko, jakizu enpresaren helbide sozialaren arabera dagokion merkataritza-arloko epaitegiaren ediktu batean agertuko dela esandako informazioa eta BOEn argitaratuko dela (IV. sekzioa: Justizia Administrazioa. Merkataritza-arloko epaitegiak). Aurkezteko epea hilabetekoa da, konkurtsoaren deia argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Epe horren barruan komunikatu eta dokumentatu beharko dute konkurtso-administrazioaren aurrean, zer kantitate ordaindu zioten enpresari jaso ez zuten zerbitzu baten truke. Idatzi sinatu baten bidez egin beharko du komunikazioa eta konkurtso-administrazioak jakinarazpenetako duen helbidean edota eragin horietarako duen helbide elektronikoan entregatu beharko du.

Hirugarren puntu honetan planteatzen den kasuan bazaude, kontsumitzaileen elkarte batera jotzeko gomendioa egiten dizugu, zure kasuari buruzko berriak aholkularitza jaso dezazun.

## HARREMANETARAKO



Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiadtuna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



ARABA Santiago, 11 hiribidea  
01002 Vitoria-Gasteiz



945 06 21 61

BIZKAIA Rekalde Zumarkalea, 39 A, behekoa  
48008 Bilbao

94 403 15 00

GIPUZKOA Easo 10,5.a  
20006 Donostia-San Sebastián

943 02 25 47



kb-araba@kontsumobide.es  
kb-bizkaia@kontsumobide.es  
kb-gipuzkoa@kontsumobide.es

[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

